

BARATZE BAT

[Pier Paul Berzaitz](#)

(Muskildi, Zuberoa, 1952)

Euskara batuan

Hau da egun ederra / Mila txorik kanta / Zatoz, ene erregina / Besoak zuri dizkizut [para](#).

Baratze bat nahi dizut egin / Amets sekretuenekin / [Liliak](#) egun jantzi ederrenetan /
Mila kolorez dantzan bihotzetan.

Gau beltz eta sakonetik / Jaikitzen naiz hozturik / Bihotza hain tristerik / [Usu](#) hitaz
[berantetsirik](#).

Baratze bat ...

Karroza bat hor dugu / Kanpoan gure [aiduru](#) / Ez gal [haboro](#) denbora / [Hiskor](#) baitago
amodioa.

Baratze bat...

Maitasun berriari / Ilargiak du argi / Emanen digu aski / Guk elkar maita dezagun beti.

Baratze bat ...

Hitzak eta musika: Pier Paul Berzaitz